

altza

«Amateurrak izateko oso ondo doakigu»

Ausartak antzerki taldea bere lan berrietan buru belarri ari da lanean, aurten bi saio kaleratzeko asmotan. Hori dela eta taldeko partaideekin aritu gara hizketan.

Nola hasi zen Ausartak antzerki taldea lanean?

Egia esan garai haietan antzerkiak kultur etxearekin lotura zuzena zuen, antzerki ikastaroak antolatzen baitziren Altzan. Ikastaro hauetan parte hartutako emakume batek bakarrizketa berezia landu zuen. Lana «La mujer sola» zen eta izan zuen arrakastak Altza antzerki munduan sartzea eragin zuen.

Zein lan taularatu ditu Ausartak taldeak orain arte?

Guztira sei dira aurreko urteetan egindako lanak: «La mujer sola», «La triple s», «El lavadero», «Casa pura» eta «Las amargas lágrimas de Petra Von Kant». Aurten berriz bi lan ezberdin taularatzeko asmoa dugu. Alde batetik, jadanik estreinatutako «Menos que nada» baka-



Gaueko 22.30etan oraindik ere entsaiatzen ari ziren Ausartak taldekoak, pasa den asteartean.

rizketa eta bestetik, prestatzen ari garen «Siempre en otoño».

Noiz izango da, prestatzen ari zareten lanaren estreinua?

Oraindik ziur ez badakigu ere, buruan darabilgun data maiatzaren 30a da. Egun horretan ziurrenik Altza inguruetan Santiago Moncada autorearen lana izango duzue ikusgai. Bertan 60, 59 eta 58 urteetako hiru emakumeen bizitza kontatzen da mahai baten inguruan, argumentuak ere

intriga eta sorpresak gordetzen dizkio ikusleari.

Zergatik hartzen duzue beti emakumea erreferentzi bezala?

Egia esan, gure sorreran bai emakumeak eta emakume taldeek izan zuten zeresana kontutan izan behar da, eta bestalde Ausartak antzerki taldeko partaide guztiak emakumeak garena.

Zein aldaketa jasan ditu taldeak sortu zenetik?

Aldaketa nabarmenena antzerki elkarte bihurtzearena izan da, hau da, hasieran

kultur etxearen magalean lana egiten baguenen, orain independentzia lortu dugu arlo guztietan eta honek alde onak eta txarrak dauka. Onak lotura gutxiago daukagulako, baina txarre ere badauzka, burokraziarena adibidez. Dena den, aurrera pausu honek taldeari on egin diola uste dugu.

Nola antolatzen duzue egin beharreko lan guztia?

Astean bitan egiten ditugu entsaioak eta gero bakoitzak etxean finkatzen ditugun egin beharrekoak: batzuek soinekoak josi, besteak diseinatu eta beste batzuk beharrezko atrezzoak konpondu... Egia esan, lau partaide izateko oso ondo osatzen dugu elkar.

Zail ikusten duzue antzerki mundua?

Profesionalentzat zail badago gu bezalako talde amateur batentzat askoz ere konplikatuagoa da. Guztira esan daiteke urten zehar 6-7 bat taularetze egitea lortzen dugula eta gehiegi ez bada ere, ezin gara kexatu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)


INTXAUSTI DIETETIKA



jaki osasuntsu
eta
naturalak

Jose Elozegi 120 • Tfnoa.: 39 89 84

1930ean sortua



Casa de Labores

Jostura eta tapizeriak
Artile eta hari-kontuetan etxerik hoberenak

Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia